



ARRASATEN SAN JOSEPEKO HARROBIAREN HUTSARTEAREN ETA GERTUKO INGURUNEAREN ETORKIZUNEN DISEINUA EGITEKO IDEIEN LEHIAKETA ARAUTU BEHAR DUTEN ARAUAK (INGURUMEN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO ERREKUPERAZIOA)

Proposamenak jende aurrean erakustea.

Lehiaketaren lehen fasea: Aurkeztutako lan guztiak erakustea eta Herritarrei kontsulta egitea.

Erakusketa publiko bat antolatuko da, Lehiaketaren lehen fasean aurkeztutako proposamen guztiak. Erakusketa noiz izango den jende aurrean iragarriko da Erakusketa hori Kulturate kultura etxean egingo da.

Epaimahaiak, Lehiaketako babesleek eta Lehiaketako erakunde kolaboratzaileek bisitatuko dute erakusketa. Halaber, interesa duten herritar guztiak ere bisitatu ahal izango dute aurkeztutako lanen erakusketa.

Era berean, herritarrek parte hartzeko prozesu bati ekingo zaio, eta hori herritarrek, botazio bidez, aurkeztutako proposamenetako bat aukeratu dute. Bosgarren proposamen finalista izango da hori, gainontzeko lau Proiektu finalistak Epaimahaiak aukeratu ditu eta. Herritarrek gehiago botazioaz aukeratu dutena bat etorri gero Epaimahaiak aukeratu duten batekin, bosgarren finalista izango da jendeak aukeratu duten artean bigarrena, eta horrela bata bestearen segidan.

Epaimahaiak, Eusko Jaurlaritzako Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzarekin elkarlanean, artikulatuko du zelan eta nola egingo den bosgarren finalista aukeratzeko herritarren botazioa. Epaimahaiak berak baloratuko du aurrekoaz gain informazio gehiago eskatuko duen, prozesuaren inguruan.

Lehiaketaren bigarren fasea: bost finalisten aurkezpen hitzaldia, bakoitzak aurkeztutako proposamenak defendatzeko.

Lehiaketaren bigarren fasea da Lehiaketa murriztu bat, aukeratu duten bost egileekin, eta hortik aterako da proiektu irabazlea eta bigarren saria.

Bost lan finalistak aukeratu eta gero, egileen anonimatua hautsiko da, eta aukeratu duten lanen leloei dagozkien A gutunazalak irekiko dira.

Aurkeztutako proposamenak garatu eta osatu beharko dituzte egile horiek, proposamenok ahalik eta zehaztuen egon daitezela, ikuspegi tekniko eta ekonomiko batetik. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Power-point-eko aurkezpen bat, era orokorrean proposamenaren zirriborroa egiteko, gehienez ere 50 diapositibaz.
- Aurkeztutako proposamenaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterketa bat, inbertsioak, errendimenduak eta gastuak kontuan hartuko dituen.
- Eraikuntza esku-hartze guztiak biltzen dituen aurreproiektu bat, bai harrobian bai haren ingurunean.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Agiri horiek aurkeztuko dira adieraziko den egun batean.

Jendurreko erakusketa-hitzaldi bat antolatuko da Kulturaten, eta bost egileetako batek aurkeztu eta defendatuko du bere proposamena. Hitzaldia izango da publikoa eta aldez aurretik adieraziko du Udalak noiz izango den.